



## Bost liberako billete berria dute Erresuma Batuan, plastikozkoa



Aste honetatik, bost liberako billete berria dute britainiarrek kutxazainetan, polimeroz (plastiko fin eta malgu bat) egindakoa.

Ingalaterrako Bankuak jakinarazi duenez, ura eta zikinkeria jasaten ditu, eta, beraz, denbora gehiago irauten du, paperezkoak baino bost urte gehiago, gutxi gorabehera.

Ingurumenari ere mesede egiten dio billete berriak, gehiago iraungo duenez, inpresio kopuru gutxiago egin behar dituztelako, eta energia eta garraioa aurrezteko ekarriko du horrek. Horrez gain, birzikla daiteke.

Seguruago ere bada billetea. Faltsutzeak saihesteko, bazterrak kolorez aldatzen diren leihotxo garden bat du, eta horrek duen hologramak forma aldatzen du mugitzen denean.

Paperezko billeteak baino %15 txikiagoak dira plastikozko hauek. Hala, tolestu eta diru-zorroan eraman daitezke, eta kontatzeko errazagoak ere ba omen dira.

Alde batean, Elisabet II.aren aurpegia du, eta bestean, Winston Churchillena.

Paperezko billeteak 2017ko maiatzera arte erabili ahalko dira. Hortik aurrera, Ingalaterrako Bankuan bakarrik aldatu ahalko dira.

Laster, 10 eta 20 liberako billeteak ere, polimeroz eginda egongo dira.

Munduan 30 bat herrialdetan erabiltzen dituzte plastikozko billeteak; besteak beste, Australian, Zeelanda Berria, Mexikon, Singapurren eta Kanadan.

## Orka kumeak haztea debekatuta, Kalifornian

Hemendik aurrera orka kumeak haztea debekatuta egongo da Kalifornian. Asteazkenean, Kaliforniako gobernaria de Jerry Brownek animalia hauek gatibutasunean haztea debekatzen duen lege berri bat atera zuen.

Arau honek orkekin egiten diren ikuskizunak ere galarazten ditu. 2017ko ekainetik aurrera, ikuskizun hauek bakarrik «helburu hezigarri» batekin egingo dira.

Gauzak horrela, parte tematikoetako Sea World enpresak martxoan esan zuen orken ikuskizunekin bukatuko zuela. Izan ere, 'Blackfish' dokumentala estreinatu ondoren, 2013an, geroz eta jende gutxiago doa ekitaldi horietara. Filman 'Tilikum' orkak hiru pertsona hiltzen ditu.



## CAFek Amsterdam hiriko tranbiaren 63 unitate egingo ditu



GVB Activa B.V. Amsterdamen garraio-lanez arduratzen den enpresa publikoak CAF (Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles) hautatu du tranbiaz hornitzeko. Kontratuak 63 unitate berri egiteko eta beste 60 tranbia zabalteko aukera jasotzen du.

1994. urtean, GVB Activa B.V. enpresak CAFi esleitu zion 37 unitate hornitzeko proiektua. Ordutik daude abian, eta Amsterdam hiriko metro-sarean eskaintzen dute zerbitzua.

Aurten, oraingoz, Erresuma Batuan, Italian eta Belgikan lortu ditu CAFek kontratuak Horrez gain, tranbiak hornitzeko proiektu ugari lortu ditu CAFek Europan, besteak beste, hiri hauetan: Budapest (Hungaria), Friburgo (Alemania), Tallinn (Estonia), Birmingham (Erresuma Batua), Nantes (Frantzia), Besançon (Frantzia), Stockholm (Suedia), Belgrad (Jugoslavia), Edinburgh (Erresuma Batua), Antalya (Turkia), Calgliari (Italia), Luxenburgo (Luxenburgo), Utrecht (Herbehereak) eta Saint-Étienne (Frantzia).

## Perfumeak kriminala salatu dezake

College London Unibertsitateko jakitun talde batzek frogatu duenez, kolonia osatzen duten konposatu kimiko batzuk ukimenarekin transmititu daitezke. Honek krimen baten autorea nor den jakitzeko laguntza ezinhobea da.

«Jende askok perfumea erabiltzen du. Izan ere, gizonen %60ak eta emakumeen %90ak erabiltzen du kolonia. Ahalmen handiko elementua da», esan du Simona Ghergelek, azterlaneko zuzendariak.

Arazorik nagusia auzitegiko medikuek, forenseek, azkar jokatu behar dutela da. Bestela, osagai kimikoak desagertu egiten dira.

## 'Astonautak', Ene Katak-en disko berria

Umeentzako abestiak prestatu ohi ditu Ene Katak egitasmoak, eta proiektu berri batean ari dira lanean; Astonauta izena du, eta hamasei abesti ditu, hamasei bideorekin.



Hainbat lagun ezagunek parte hartu ohi dute ekimenean, eta hala izan da oraingoan ere. Gainera, hamabost herri eta euren inguruetako ikasleek abestiak dantzatu dituzte; tartean, Barakaldoko umeek hartu dute parte.



## Ilargi-eklipsea gaur

Gaur, 2016ko azken gertakari atmosferikoa izango dugu. Ilbeteen, ilargi-eklipsea Europan, Afrikan, Australian eta Pazifiko zati handi batean izango da ikusgai.

Ilargi-eklipsea 18:53an hasi eta 22:50ean bukatuko da. Eklipsearen zenita 20:52an izango da, ordu horretan sartuko baita Ilargia Lurraren ilunantz edo penunbran. Euskadin ikusgai izan arren, antzemateko zaila izango da, gaurkoa ez baita oso fenomeno deigarria. Ilargi-eklipse osoa ikusteko, 2018ra arte itxaron beharko dugu.

2017an, berriz, Eguzkiaren ezkutatzeko osoa izango da. Abuztuaren 21ean, 20:30 aldera, ikusgai izango da, Ilargia Lurraren eta Eguzkiaren artean jartzen denean.

**EGURALDIA** Larunbatean, ostiralean baino euri gutxiago egingo duen arren, ez du atertzerik lortuko eta giro bustia eta umela izango dugu. Ipar ukituko haizearen eraginpean jarraituko dugu eta apenas aldatuko den tenperatura, beroenak 20°C ingurukoak izango dira. **Igandean**, udazken itxurako giroak jarraipena izango du. Euri arina egingo du, baina hodeitza ez da horren itxia izango eta noizean behin ostarte txikiak zabalduko dira. Ipar haizeak aginduko du baina tenperaturaren ez du aldaketarik espero behar.



## Larruazala freskatzen duen ehun berria

Stanford Unibertsitateko ingeniarietako plastikoen oinarritutako ehun berri bat diseinatu dute. Esan dutenaren arabera, zuntz merke bat da eta janzerakoan gorputza freskatu egiten du. Dirudienek, «gaur egun erabiltzen diren ehun naturalak eta sintetikoak baino hobe funtzionatzen du».

Ikerketak diotenaren arabera, ehun honen erabilerak aire girotua ordezkatu dezake. Izan ere, klima epeletan jendea fresko mantentzeko teknikarik hobereena izango litzake. «Pertsona bakoitza freskatu badaiteke, hobe hori egitea eraikin guztia freskatzea baino», diote Stanford Unibertsitateak.

Nahiz eta zuntza sortua eduki jadanik, adituek kolore eta testura gehiago eman nahi dizkiote ehun berri honi. Izan ere, jantzi arrunt baten itxura edukitzea lortu nahi dute.


## Ahazteko moduko partida egin du Athleticek Sassuolon (3-0)

Athleticek porrot nabarmena hartu du Sassuoloren estadioan, 3-0, Europa Ligako multzoen faseko lehen jardunaldian. Bilbotarrek garesti ordaindu zituzten defentsan egindako hutsak.

Zuri-gorriek baloiaren jabetza izan zuten, baina ausardia falta izan zitzaien, eta italiarrek, aldiz, nahikoa izan zuten izandako aukerak aprobetxatzearekin.

## Jonathan Castroviejo, Europako txapelkun erlojuaren kontra

Jonathan Castroviejo getxotarrak (Movistar Team) urrezko domina irabazi du Plumelecen (Frantzia), Europako Txapelketetan jokaturako erlojuaren kontrako lasterketan.



Bizkaitarrak 30 segundo atera zizkion Victor Campenaerts belgikarrari eta 39 Moreno Moser italiarrari.